

kultura zerbitzua

2024UDIR0003
26. Ferixie
HITZARMENA

ESKORIATZAKO UDALA ETA ARIZMENDI IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMEN

BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duena.


ETA BESTETIK, Laurane Zubia Balanzategi, NAN 18593432W duena, Arizmendi ikastolako Administrari Nagusia, Arizmendi ikastolaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duena.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

- 1.- Arizmendi Ikastolak urtez urte, 1997tik hasita, honezkero tradizionala den "Ferixie" izeneko bertako produktuen eta artisautza azoka antolatu izan duela Eskoriatzan ekainaren lehen larunbatean.
- 2.- Herritarren artean gertakari kultural kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua dela "Ferixie", publiko eta bisitari asko erakartzen ditu, eta gure udalerriko kulturaren erabat errotuta dago.
- 3.- Ondare kulturala, bere zentzurik zabalenean, mantentzeko eta sustatzeko modu bezala hartu izan da jai hau: ohiturak, tradizioak eta herri baten nortasuna definitzen duten ezaugarrien multzoa.
- 4.- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikulua diru laguntza zuzenak emateko kasu bezala udal aurrekontuetan diru laguntza izendun bezala jasotakoak aurreikusten dituela, hitzarmenetan eta horiek arautzen dituzten araudietan ezarritakoaren arabera: "Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako izendun diru laguntzat jotzen dira gutxienez bere aurrekontu zuzkidura eta onuraduna Aurrekontu gastuen egoeran zehaztuta dituztenak. Diru laguntza hauen helburua berariaz zehaztuta egon beharko da dagokion lankidetzaren hitzarmenean edo diru laguntza emateko erabakian, eta edozein modutan ere, bat etorri beharko da dagokion aurrekontu kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin".
- 5.- 2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira eta horietako lehenengoa Kultur Dinamizazioa izenekoak.

Kodea	W24/0027	Udala	Eskoriatza
CUDO	000.0034.AAAAE3D2.8.xMba		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAE3D28.xMba		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Lerro horren D atalean, Ferixa ekintza burutzeko Arizmendi Koop. elkartearentzako dirulaguntza izenduna dago, eta dirulaguntzaren helburua da elkarte horri diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzen.

Eskoriatzako Udaleko 2024ko aurrekontuetan 3.000 euroko diru laguntza aurreikusten da Arizmendi ikastolarentzako Ferixie antolatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dutela.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen helburua 2024ko ekitaldirako udal aurrekontuan Arizmendiren alde dagoen diru laguntza izenduna antolatzeta da. Diru laguntza hori 26. FERIXIEk sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko da.

BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du 3.000 euroko diru laguntza emateko 0400.471.431.10.01 aurrekontu aplikazioaren kargura 26. FERIXIEk sortutako gastuak finantziatzen laguntzeko.

Arizmendi ikastolak ez du ordainduko "26. Ferixie" antolatzeko behar dituen udal material eta azpiegiturak erabiltzeagatik Udal Ordenantzetan ezarritako fidantza.

"26. Ferixie"-ren garapenean, antolaketan edo ospakizunean ondorio larriak edo galera ekonomiko handiak sor ditzakeen ezustekoren bat gertatuz gero, Udalak sentsibilitate bereziz ikertuko du gertatutakoa, eta ondorioak arintzeko egoki deritzon neurri materialak edo ekonomikoak ezarriko ditu.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak.

Langileen (finko zein aldi baterakoak) zuzeneko kostuak diruz lagungarriak izango dira bakarrik langile horiek diruz lagundutako jardueran eginkizun zuzen eta giltzarria badute, eta betiere, kobratutako kopuru osoa ez bada 5.500 euro baino handiagoa eta kopuru hori ez bada jardueraren gastu osoaren % 40 baino handiagoa. Ez dira zuzeneko kostu diruz lagungarriak, eta zeharkako kostutzat joko dira, laguntza emateko soilik diren erakundeko langileak (adibidez, zuzendari nagusia, kontularia, kontratazio arloan laguntza ematen duena, giza baliabideetakoak, informazio teknologietakoak, administrari laguntzailea eta abar).

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:



- Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.
- Ez dira onartuko kilometraje, ibilgailuentzako erregai, telefono zerbitzu partikular edo antzeko gasturik.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte; 7. baldintzan jasotako salbuespena izan ezik.

LAUGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK

Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzekin. Hala ere, inolaz ere ez da gain-finantzaziorik onartu. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA: ARIZMENDI IKASTOLAREN BETEBEHARRAK

- Diru laguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.
 - Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.
 - Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.
 - Diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
 - Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan errekeritzen zaien informazio guztia ematea.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
 - Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean.
- Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.
- Ferixaren antolatzaile den Arizmendi ikastolak berezkoa du euskararen erabileran eta normalizazioan urratsak ematea, beraz, Ferixaren antolaketa lanetan nahiz egunean bertan euskararen erabilera bermatuko du. Adibide gisa, erakusgai jarritako postuetan idatzizko elementuak euskaraz egoteko ardura bere gain hartzen du.



- Jarduerarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.

- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

- Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko du Ikastolak; horretarako, aldez aurretik Kultura batzordean jardueraren iragarki-kartelaren eredu bat aurkeztu beharko du.

- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketa buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere. Arizmendi ikastola joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitekeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a hitzarmen hau sinatu ondoren.

Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 7. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

ARIZMENDI IKASTOLAK ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu telematikoki Udala Erregistro Orokorrean diru laguntza justifikatzeko 2024ko azaroaren 1a baino lehen:

- Eskaera orria.
- Jarduera egin zela eta helburuen betetze maila egiaztatze txostena.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatze txostena. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatze txostena, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.



- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Jardueragatik egindako gastuen fakturak behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

a) Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.

- Elkarrekin ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banaketa edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako dokumentuetan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.
- Salbuespen gisa, lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkari bezala, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 125 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketara ez bada jardueraren gastu guztiaren % 30a baino handiagoa.
- a) Ordainketa data, Ferixa egunarekin bat etorri beharko dena.

b) Ordaindutako zenbatekoa.

c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzen duenaren identifikazioa.

c) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

- Langileen gastuak justifikatzeko:

Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (*TC/1 eta TC/2 dokumentuak*) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.



ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Kultura teknikaria eta kultura zinegotzia edo berak izendatutako pertsona.
- Arizmendiren aldetik: Haur Hezkuntzako zuzendaria, Jose Aranako arduraduna eta jarduerako kudeatzailea.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

HAMARGARRENA.- IZAERA Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALAREN ALDETIK

ARIZMENDI IKASTOLAREN ALDETIK